

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 232. alea - 2018ko abuztua



**“Debarock Kolektiboa, 10 urtez
musika eredua iraultzen”**

sasoiko

ekodenda,
dietaetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: telarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi 14 943 19 24 42 sasoiko@hotmail.com

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

50 URTE

BURU - ZURI
Taberna

- Oartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntzak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



k

kutxabank

Hazirik

ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
telf.: 943 02 99 63
e-mail: hazirik@gmail.com



Calbeton

JATETXEA

Agustín Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTARLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Edurne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482



San Roke jai zoriontsuak!

ASPALDIKO!

18-19 IKASTURTEA

EUSKARA

BERRIRO

ZURE

BIZITZAN.

Ikastaroak

- Aurrez aurrekoak: 2 edo 4 egun asteen, mailaren arabera.
- Autoikaskuntza Internet bidez
- Ikastaro bereziak (enpresak, AISA, merkatariek eta ostalaritza)
 - Perfilak (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)
 - HABEren 1., 2., 3. eta 4.mailak
 - EGA

16 urtetik gorakoentzat
Matrikula ZABALIK IRAILAREN 26RA ARTE
Langabetu, ikasle eta gurasoek, MATRIKULA ERDIA
Ikastaro amaieran BEKAK denentzat. (Baldintzak betez gero)
Informa zaitetz Udal Euskaltegian!

18/19

Matrikula epea zabalik
Plazo de matriculación abierto

www.udaleuskaltegiak.eus

DEBA: 10:00-12:30 / 17:00-19:30
DEBABA UDAL EUSKALTEGIA
Ifar Kalea, 12, - Tel.:943 192 236



AURKIBIDEA

05

LABURRAK

“Irriak plazan”
ikuskitzuna eta Euskal
Jaiko kartel lehiaketa,
Zuhatzaren ekimenez

06

IRITZIA

Joxemari Altzibar:
“Santa Katalina”;
Patxi Aizpitarte:
“D. Jose M^a Setien”

08

ALBISTEAK

Deba eta Mutriku
batzen dituen
zubia, Caritas
elkartearen tonbola...

10

UDALEKUAK

Aurtengo Kolorez Blai
euskal udalekuetan
ateratako irudien
bilduma

14

SAN ROKEAK

Zer berri aurtengo
jaietan? Elkarrizketa
Debarock Kolektiboari,
egitaraua egunez egun...

Berriketan aldizkariaren hurrengo alea, urrian!

Esku artean daukazuen ale honekin agurtzen du **Berriketan** herri aldizkariak ikasturtea. Abuztuaren erdialdean, jaien atarian, oporrak hartuko ditugu erredakzioan, baita Zuhatza Euskara Elkartearen ere; hori dela eta, urtero bezala, irailean ez dela **Berriketan**-ik kaleratuko gogorarazi nahi

dizuegu. Hurrengo alea urrian plazaratuko dugu. Ordura arte agurtzen zaituztegu, beraz!

Aldi berean, lerro hauen bitartez, herriko festetan zein oporraldietan ondo pasatzea opa dizuegu. Eta, badakizue, irailetik aurrera izango dugu berriz ere elkarren

berri, besteak beste, hitzordua jarrita baitugu Euskal Jaian.

Bien bitartean, ondo pasa uda eta, batez ere, gozatu, baina ez ezazue euskara oporretara bidali! Badakizue, guk geuk nahia go euskaraz!

Zuhatza Berriketan

BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debaiko Udala



Heriotza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Heriotza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

Kolaboratzaile berezia:

Mendata BHIko prentsa tailerra.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Debarock Kolektiboa

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Inprimategia: Euskalinpri

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 1.500 karaktere izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

Animatu eta etorri gurekin abestera!

Urtean zehar, hilabetean behin edo bitan aritzen gara kanta eta kanta Debako kaleak alaituz. Horregatik, **urriaren 28an Euskal Herri osoko Kalean Kantuz-eko talde desberdinak gonbidatu ditugu, Deban egingo den lehen topaketa ospatzeko asmoz.** Herriko kale guztietan barrena ibiliko gara, kantu herrikoiak eta euskaldunak abestuz.

Kalean Kantuz zabalik dago bertan parte hartu nahi duen edonorentzat eta, hau datorrela aitzakiatzat hartuz, egun horretan nahiz irteten garen guztietan gurekin abestera animatu nahi zaituztegu. Udako geldialdiaren ostean gogotsu itzuliko gara irailan.

Animatu eta etorri gurekin abestera!! Zuen zain egongo gara.

Debako Kalean Kantuz Taldea



Bi urte zu ikusi gabe

*Heriotzaren itzal arrotzak estali zintuenean,
berri gaizto bat heldu zitzaigun erarik ankerrenean.
Lur maite honetan iluna ia nagusitzen zaigunean,
izarrak hemen behar ditugu, ez zeru ederrenean.*

*Zu joanez gero, Mikel, ni nauzu minez pentsatzen jarria,
zure heriotzak hondoraino dit kezka latza ekarria:
nork ote duen beteko utzi duzun hutsune larria,
hain zen ederra zure irria, hain zinen maitagarria!*



*Itxaropenak ipintzen gaitu gauez goizari begira,
ilun beltzaren erraietatik ihes datorren argia.*

*Bai Mikel, zure irria eta begietako dirdira
ezerezean galtzeko ez baina betiko eginak dira.*

*Nola begiak malko basatiz, ahoa kantuz zait bete,
apurtu nahian herio beltzak sorturiko hainbat kate.
Esperantzaren argi-izpiak, gailenduko ahal zarete!
Adio, Mikel bihotzkoa, elkargana bildu arte!!!!!!*

Marian Larrañaga

****Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago**

Jendetza bildu zen “Irriak plazan” ikuskizunaren bueltan

“Irriak plazan” Tiritatxo eta Martinbertsoren ikuskizuna Debako zumar-dira ekarri zuten Irrien Lagunak klubeko kideek joan den uztailaren 17an (asteartea).

Iluntzean eguraldiak okerrera egin bazuen ere, giro ederra mantendu zen emanaldiak iraun zuen bitartean. Jendetza bildu zen ikuskizunaren bueltan.

Zuhatza Euskara Elkartek antolatu zuen hitzordua, urtero-urtero uda partean etxeko txikientzako euskarazko aisialdi eskaintza aberastu nahian antolatu ohi dituen ekimenen baitan.



Badugu Euskal Jaia iragartzeko kartela

Inma Alberdik sortutako kartelak iragarriko du datorren irailaren 29an (larunbata) ospatuko dugun garai berriko XXI. Euskal Jaia.

Zuhatza Euskara Elkartek antolatutako kartel lehiaketaren aurtengo edizioan lau lan aritu dira lehian. Lan guztiak uztailaren 26an egon ziren ikusgai plaza zaharrean, eta herritarrek bozka bidez hautatu zuten kartel irabazlea. Arrakastatsua izan da bozketak. Izan ere, guztira 430 lagun hurbildu zitzaizkigun beraien iritzia ematera, gustukoena zuten kartelari botoa emanez. 148 boto jasota irabazi du lehia Inma Alberdik (alboko argazkian ageri da kartelarekin), bigarren lan bozkatuenari 20 botoko aldea aterata.

Zuhatza Euskara Elkartek 300 euroko saria eman dio dagoeneko irabazleari.

Eskerrik asko aurtengo bozketan



parte hartu duzuen guzti-guztiori eta, nola ez, lanak aurkeztu dituzuenoi! Ea datorren urtean ere elkar ikusten dugun guztiok...



JON ETXANIZ

Ebidentziak

Informazioaren aroan bizi garela entzuten dut behin eta berriro, baina ezkurtuko interesez beteriko zurrumbilo baten erdian gaudela esango nuke eta honek gizartea erabat noraezean daukala.

Berdin da zein esparruz ari garen, informazioa aurkituko dugu bai txuria bai beltza argudiatzeko, egia grisean dagoela defendatzen dutenez ahaztu gabe. Eta, kontrakoa badirudi ere, zientziaren mundua ez da salbuespena. Hipotesi kontrajarriak defendatzeko “ebidentzia zientifikoa” aurkitzea oso erraza da gaur egun.

Testuinguru honetan bakoitzak bere irizpidea izatea garrantzitsua iruditzen zait eta hortik aurrera esperimenteratzea. Nik neurea argi daukat, erraietara begiratu eta espeziearen has-tapenetik gure arbasoei aurrera egiten lagundu dieten jokabideei heldzea. Hau lortzeko bereziki garrantzitsuak iruditzen zaizkit naturarekin bat egitea eta gure senak esaten diguna entzuteko gaitasuna berreskuratzea.

Egunsentiko eguzkiaren goxotasuna jaso, ahal den beste mugitu, gosearekin jan, egarriarekin edan, larrua jo, ilunabarraz gozatu eta gauez lasai lo egin.

Gizaki bati dagokionez elikatu, sasoiaren arabera, barazkiak, fruituak, sustraiak, arrautzak eta salto, korrika, hegan edo igeri egiten duen edozer jan. Hau guztia ahal den neurrian maite dugun jendearekin partekatzea ahaztu gabe, gure tribuarekin.

Eta bai, badakit bizi estilo hau ere moda bat dela esaten duen jendea dagoela, eta agian hala izango da, baina nik aukeran nahiago ditut milaka urte irautzen duten “modak”. Iraute hori iruditzen baitzait ebidentzia zientifikorik handiena.



Pertzepzioa eta inpresioa daukat Udaletxeak Santa Katalina erosi izanak ez duela izan behar edo merezi zuen oihartzuna.

Niri, debar, mendizale eta naturzale naizenez, ikaragarriko ilusioa egin zidan. Zergatik? Bada, ingurune, paraje paregabe horrek duen talaia, natura eta paisaia gunearen balioagatik. Euskal kostaldean humanizatu eta desitxuratu gabe dugun talaia, behatoki eta ingurune ederrenetakoa dugulako.

Ekialdera Aitzuri, Sakoneta, orain Flyscha izenez ezagunago egin dena; Ipar aldera, udaberriko hego-haize egun argietan, Jaizkibelen ezkerrean Landetaraino ikusi dezakegun itsaso zabala. Gau argietan Miarrizteko faroen argitasunarekin...

Mendebaldean, berriz, Lekitxoko Otoio Mendi magalera-noko itsas bazterra... Eta hegoaldera Arno mendiaren ezkerretara Karakatetik hasi eta Anboto arteko mendiak ikusteko parada izango dugu... Benetan toki paregabea dugu Santa Katalina.

Agian nire ilusio honek oinarri sentimentalak ere baditu: ume, nerabe eta gazte mendizale garaiko oroitzapenak... San Juan gauean egiten zen sua eta erromeria... Ondoko baserriko sagardoa eta mendi itzuliaren ondoren dendan akanpada egiten genuenean... Eguraldi txarra zela eta paella erraldoi bat ermita barruan egin genuenean...

Sasi-koipetsu egitera igotzen ginenean. Bati baino gehiagori sasi-koipetsu hitzak berak ezer gutxi esango dio, baina... Bada, ostegun gizen egunetan txorizo tortilla egitera joaten ginen, oso aspaldikoa iruditzen zaigun garai hartan.

Aspaldian ermita eta bere ingurune guztia oso degradatua zegoen eta toki horrek ez zuen merezi eta oraindik ere ez du merezi dagoen egoeran egotea...

Zorionez, Udaletxeak urrats oso garrantzitsua eman du bere jabegoa lortzean, eta pentsatzen dut berandu baino lehen

Santa Katalina merezi duen egoeran ikusiko dugula.

Proiektua hor dago.

Hemendik bidali nahi dizkiet nire zorionak eta esker onak hori lortzen saiatu eta ahalegindu diren guztiei.

Halere, Udaletxeko web orrian irakurri ez dutenentzat, kronologia txiki bat erakustea merezi duela uste dut.

SANTA KATALINA herrikoa zen, baina aspaldi batean, 1869an alajaina, Debako herriaren alde egindakoarekiko esker onez, Udaletxeak oparitu egin zion Francisco de Lersundiri.

1987an arkeologi indusketak egin ziren bertan Aranzadiren eskutik eta Erdi Aroko zenbait zeramika pieza agertu ziren.

2002ko abenduaren 27an Udaletxeak jabegoa berreskuratzeko ahalegin bat egin zuen, baina horretan gelditu zen.

2007an "Revisión de normas subsidiarias de planeamiento de Deba" izeneko txostenean, 11. orrian, "Mirador paisajístico excepcional y único" bezala izendatzen du.

Eta horretarako Santa Katalinaren osotasuna honela proposatzen du: *Recuperación ambiental y Equipamiento programado: "Se autorizan exclusivamente edificaciones ornamentales y construcciones fijas o provisionales destinadas a usos auxiliares y de los espacios libres y necesidades de los vecinos de Egia. Dentro de los usos vinculados al Camino de Santiago, se permite un Albergue de peregrinos"*.

Talaia bidearen (GR 121) egokitzapena dela eta, Itziarko Ama Birjina ondoan eraiki zen pasabidea dela eta, Udala Lersunditarrekin berriro kontaktuan jarri zen eta honen ondorioa da Udalak eta Alfonso del Valle Lersundik lortutako akordioa, 2017ko apirilaren 27an.

Hasieran esan dudana bezala, hau jadanik ez da notizia. Baina bai nahi nuen saiatu balioan jartzen Santa Katalina. Sarri askotan miresten ditugu munduan zehar ikusten ditugun parajeak eta ez dugu ikusten eta baloratzen etxe ondoan duguna.

Mila esker herriaren jabegora itzultzen saiatu diren guztiei.

Aprobetxatu nahi dut aukera hau dagokionari eskaera bat egiteko. Zera da: hondartza ondotik, Buenos Airesetik Santa Katalinara doan bidean pasoa debekatua dago. Ez alferrik, ia egunero jendea dabil gora eta behera, honek dakarren arriskuarekin.

Uste dut heldu dela garaia pentsatzen hasteko bidearen konponketaz, zeren mendizaleen joan-etorriak saihestu ezinak baitira. Bideak eskaintzen dituen kosta eta hondartzaren bistak erakaragarriak eta paregabeak baitira.

Joxemari Altzibar

Kirol jarduerak, txapelketak, irteerak... egitarau oparoa Debako Gaztelekuan

Uda badoa aurrera Gaztelekuan! Gaztetxoekin Donostiara egin genuen irteera; lehenbizi Aquariumera joan ginen eta arratsaldean Santa Klara uhartera egin genuen bisita. Zaharrenek, berriz, boleibol txapelketa antolatu zuten Gazteleku guztiarentzat. Urte osoan zehar lan ezberdinak egin ondoren, azkenean Murillo De Gallegora joan ginen rafting eta hidrospeed egitera, zoragarria izan zen! Bilbo aldean ere ibili gara, *Scape Room* bezalako ekintzak hiriburuan eginitxo txangoekin uztartuz. Hala ere, lerro hauek idazterakoan, burutu gabe genituen udarako aurreikusitako azken ekimenak. Izango duzue Nafarroa eta Salouko bidaietan egin dugunaren berri ere!!

Debako Gaztelekuko Hezitzaileak



iritzia

D. Jose M^a Setien



**PATXI
AIZPITARTE**

Hil berria dugu D. Jose M^a. Uztailaren 11n ospatutako hileta ospakizunaren amaieran, Katedraleko presbiterioan hilobiratua izan zen, Gipuzkoako aurreko hiru gotzainekin batean. 90 urte zituen eta horietatik 27 Donostiako gotzain zerbitzuan eman ditu. Lehenbizi D. Jazinto Argaiaren gotzain laguntzaile (1972-1979) eta ondoren gotzain titular bezala (1979-2000). Azkenean, gotzain emeritu bihurtzeko prest egon zen, Joan Mari Uriartek erreleboa hartzeagatik.

Vatikano II.a Kontzilioaren ondorengo urteetan hasi zuen bere gotzain zerbitzua eta gotzain-ikur hau aukeratu zuen biderako: "Ez dut Ebanjelioaren lotsarik". Goiburu honekin saiatuko zen Kontzilioaren espiritua eta edukia gure Elizbarrutian txertatzen eta Vatikano II.a gure arteko egiten. Prestigio, jakinduria eta lanerako kapazitate handia izanik, Gipuzkoako apaiz, erlijioso eta laiko gehientzat benetako gidari eta erreferentziatzeko pertsona bihurtu zen. Gure Eliza

elkarte girokoa eta ebanjelizatzailea izan zedin saiatuz eta lankidetzari garrantzia emanaz.

Azpiramarratzekoa da gure herriko behartsuekiko agertu duen sentiberatasuna eta arreta. *Proyecto Hombre* programa martxan jarritz herriak hainbat gazte harrapatzen zituen 80. hamarkadan; Loiolako *Villa Betania* IHESdun gaixoen-tzat babes-etxe bihurtuz, edota *Gizaide* eta *Hurkoa* fundazioak sortuz gaixo mentalentzat eta bere burua gobernatzeko gai ez direnentzat. Caritaseko proiektu askoren bultzatzaile izan da.

Eta ezin utzi aipatu gabe, gure herriak bizitako urte zail eta gatazkatsuetan eskaintako gogoeta baliotsua, Ebanjelioa, kristau humanismoa eta etika konprometitu bat oinarri hartuta. Pertsonaren eta bizitzaren balio nagusiaz, giza- eskubide eta eskubide kolektiboez, indarkeriaz eta bakeaz, bizikidetzaren sozialaz eta adiskidetzear, justiziaz eta barkamenaz eta beste hainbat gaiez gogoeta argitsua eginez eta hitza arriskatu.

“Bonifikazioak izango dituzte garraio publikoan Deba eta Mutriku arteko zubiaren hausturak kaltetutako bizilagunek”



Itxita jarraitzen du Deba eta Mutriku lotzen dituen harrizko zubi zaharrak. Zubiaren oinarri bat hondoratu egin zen joan den uztailaren 5ean, eta zubiaren zati batek behera egin zuen. Ezbeharra gertatu eta hilabetera, egoerak bere horretan jarraitzen du. Oinezkoen zubiaren egoera ikusita, konponketa lanek luze joko dutela aurreikusten da.

Debako Udalak uztailean plazaratutako “Deba Berri” udal aldizkarian jakinarazi du jadanik jaso duela zubiaren egoerari buruzko lehen txosten teknikoak. Txostena “premia handienaz” egin dute Ingelán S.L. eta Fhecor Ingenieros Consultores enpresek. Nolanahi ere, Udalak berretsi du “gertatutakoa larri delá eta denbora beharko delá ezbeharrak eragindako kalte teknikoak eta pertsonalak konpontzeko”.

Bi ibaiertzen arteko garraioaren arazo konpontzeko neurriak hartzea izan da lehen urratsa. Gipuzkoako Foru Aldundiak uztailaren 30ean adierazi zuenaren arabera, Aldundia, Garraioaren Lurralde Agintaritza eta Deba eta Mutrikuko Udalek akordioa erdietsi dute, bi herrien arteko zubiaren hausturak kaltetutako bizilagunei mugikortasuna errazteko. Adostutakoaren arabera, zubiaren alde batetik besterako ibilbidea egiten duten Lurraldebuseko autobuse-tan egiten diren bidaiak bonifikatuko dizkiete kaltetuei. Alde guztiak azpiegitura “ahalik eta azkarren” konpontzeko konpromisoa berretsi dute.

Bitartean, eta garraio publikoan bonifikazioak izateko, Mugi txartela duten bizilagunek Deba edo Mutrikuko udal-tan eman beharko dute izena, eta ez

dutenek, bertan atera ahal izango dute. “Gipuzkoako Garraioaren Agintaritzak prozesu guztian lagunduko du, eta hilerro bonifikatuko ditu txarteletan zubiaren bi aldeak lotzen dituzten paraden artean eginiko bidaiak –argitu dute prentsa oharrean-. Neurriak Deba ibaiaren mendebaldean bizi diren 300 bat herritarrei eragingo die, euren mugikortasuna bermatzeko alternatiba eraginkorra eskainiz, zubiaren hausturak asko mugatu baititu beraien joan-etorriak”.

Zubi zaharra itxteak sortu dituen eragozpenen harira, azken asteotan bizilagun ugari aldarrikapenak edo protesta egiteko pankartak eskegi dituzte, zubian ez ezik, baita euren etxebizitzetan ere. “Pasabidea orain” edota doako autobus zerbitzua eskatzen dute –goiko irudietan ikus daitezke aldarrikapenak–.



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

Jari zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatzza

943 191 383
berriketan@zuhatzza.com

Itxas Gain
Taberna
Itxas Gain

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Elkartasun tonbola antolatu du aurten ere Debako Caritas elkarteak

San Roke jaietako tonbola antolatu du aurten ere Debako Caritas elkarteak. Abuztuaren 10etik 19ra bitartean egongo da zabalik, Portu kalean (Sagarna denda zegoen lekalean), 12:00etatik 22:00ak arte.

Guztira 30.000 boleto jarriko dira salgai, iaz baino 10.000 gehiago. Txartel horiek guztiak aurreikusitako dataren aurretik saltzen badira, aurrez itxiko da tonbola. Hilaren 19an oraindik ere txartel guztiak sal-

tzeke badaude, berriz, hurrengo astean ere irekiko da tonbola.

Antolatzaileek jakinarazi dute boletoen sariak abuztuaren 24a baino lehen jaso beharko direla tonbolan bertan. Txartel bakoitzak zenbaki bat izango du eta zenbaki guzti-guztiek -sartuak izan ez direnek ere-, zozketa berezian parte hartuko dute abuztuaren 24an. Dendan bertan eta www.deba.eus atarian argitaratuko dira zenbaki sarituak.

Aske dago familiak Mendebaldeko Saharan bahituta zeukan emakumea

L.S.H. 19 urteko Debako gaztea Tindufeko (Aljeria) saharar errefuxiatuentzako kanpalekuan egon da bahituta zortzi hilabetez, ezkontzera behartu asmoz familiak atxiki zuenetik. Eta uztailearen 21ean jakinarazi zuten askatu egin zutela, eta Madrilera heldu zela.

Emakume gaztearen lagunak maiatzean jarri zuten salaketa Ertzantzan, eta kasua publiko ere egin zuten. Jakinarazi zuten azaroan kendu ziola dokumentazioa familiak hemeretzi urteko gazte debarrari,

amarekin familia bisitatzera Saharara egindako bidaian. Gazteak maiatzean lortu zuen bere Euskal Herriko lagunekin harremanetan jarri eta laguntza eskatzea.

Zortzi hilabetez bahituta egon ostean, uztailearen 21ean jakin zen askatu zutela, dokumentazioa eskuratu zuela eta Espainiara joana zela. Bitartekaritzan Frente Polisarioko kideek eta Jesus Loza Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkariak esku hartu dutela zabaldu dute hainbat hedabidek.

Moda desfile ikusgarria Myriam Martin diseinatzailearen jantziekin



Zumardian kokatutako karpa txiki geratu zen uztailearen 21eko desfilean. 30. hamarkadan girotutako diseinuak aurkeztu zituen Myriam Martin diseinatzaile eta jostunak, ezohiko desfilean. Martinen gidoia oinarri hartuta, Ane Landak eta Aurora Arritokietak sortutako ikus-entzunezkoak lagundu zuten publikoa antzinako garaietan kokatzen. Eszenaratzea dotoreagoa izan zedin, zuzeneko musika eta dantza emanaldiak eskaini ziren bertan. 23 herritar modelo lanetan, 26 jantzi aurkezten jendaurrean.



ITSASO ARAMENDI

Ikusi beharreko gauzak

Espero gabeko azken uneko bisita izan dugu. Aspaldi ezagututako bi lagun iritsi ziren gaur zortzi. "Izarak zikinak daude, aldatu egin behar dira. Aspaldian ez dugu hautsik kendu. Pasako dut nik xurgagailua". Azken uneko txukunketak.

Zer ikusi. Ikusiko lituzketen lekuen zerrenda ekarri zuten. *Lonely Planeta* goitik behera zuten aztertuta. Kilometro mordoia egin dugu aurrera eta atzera, bai oinez, bai kotxez: Jaizkibelen goiz pasa, San Juanen mokadua. Donostia oinez goitik behera. "Ze pintxo goxoak!". Badia eta uhartea, hor atsedena. Ardo zaleak dira, eta Arabako Errioxan izan ginen. Bidean, Gasteizen eta Añana Gesaltzako gatz haranean parada. Urdaibai, Gaztelugatxe, Bilbo; hurrengo eguneko bisitak. Hankak txikituta, baina lortu genuen denera iristea, pentsatutakoa egitea. Biarritz eta Baiona: *Le Cafe de la Grande Plage*-eko kafea, Hondartza Handian paseoa, Baionako Santa Maria katedrala eta gaztelu zaharra. Goizean goiz jaiki, eta Nafarroako gotorlekuen eta gazteluen bisita. Naturaz ere gozatu genuen. Urbasa-Andiako Parke Naturala, Urederra. Gaurkoa azken eguna: Zarautz, Getaria eta Zumaia. Kosta. Zumaiaitik iritsi berri gara Debara, oinez egin dugu bidea, flyscha ikusi dute.

"Zergatik ez dugu trago bat lasai hartzen? Baina, bihar bagoaz, eta oraindik ez dugu ikusi...".

Udalekuetako ginkana jolasa izan da. Jo alde batera, jo bestera. "Dena" ikusi nahi. Ikusi beharraren ikusi beharraz itsu ez dugu jakin ez zer moduz bizi gare, ez zer berri dugun. Zer ikusi dugu?



Kolorez Blai Udalekuak

"Zarena zarela berdin du!... Munduan zehar libre izan, eman aurrera bi pausu. Denok zu!"

Guk bai eman ditugula aurrera bi pauso 2018ko Kolorez Blai Udalekuekin! Pozez zorutzen gaude sortutako taldea, giroa, egindako lana eta, batez ere, haurren aurpegieta marraztu ditugun irri-barre horiengatik guztiengatik!

Ekintza berriz osaturiko programa egin dugu aurten eta borobil atera da

dena! Mendi eta hondartzaz gozatzeaz gain, errugbi eguna, berdintasunaren eguna, Euskal Jaia, erromeria, jolas parkea eta hainbat ekintza polit eta dibertigarri egin ditugu. Zoragarria izan da haurrek zein begiraleek elkarrekin hain talde bikaina sortu dutela ikustea.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Gazte Asanbladari, Ezten Giro erromeri taldeari, Udalarari eta baita Zuhatza Euskara Elkarteari ere, zuei esker bagoaz gure

koloretako ametsa egi bihurtzen.

Aipatu nahi nuke begiraleen lana bikaina izan dela. Plazer handia izan da elkarlanean aritzea eta zorionik beroenak egin duzuen guztiarengatik. Besarkada eta txalo handi bat merezi duzue, dudarik gabe! Ondo pasa udara eta hurrengora arte!

Emili Sukia, Kolore Anitz Aisialdi Taldeko koordinatzailea





Zuhatzá
Tudatos életemek
L. Debő





AMODIOZKO GUTUNAK 2018

Uztailean egin bezalaxe, *Berriketan* aldizkariaren abuztuko alean ere Mendata institutuko ikasleen lan batzuk bildu ditugu irakurleontzat. San Balentin egunaren bueltan, amodiozko gutunen lehiaketa egin zuten institutuan eta lehiaketara aurkeztutako lan aipagarri batzuk bildu nahi izan ditugu orrialde hauetan.

Laugarren mailako ikasleek gutun itxurako idazlanak aurkeztu dituzte lehiaketara eta lehenengo mailako gaztetxoek olerkiak prestatu dituzte. Saritutako lanak eta aipamen berezia lortu dutenak dituzue hemen irakurgai:

Donostian, 2018ko urtarrilaren 22an

Maite zaitut

Kaixo, ama:

Batzuek diote sentimenduak errazago transmititzen direla paperean, paper zuri baten eta boligrafo baten aurrean jarrita.

Egia esan, ez dakit zer esango dizudan, ezta zer esan nahi dizudan ere. Hasteko, argi utzi nahi nizuke egunero gogoratzen naizela zutaz, eta zure ondotik alde egin nuen egun hartaz zer esanik ez.

Zure senarra zen nire aitak beste familia batengatik utzi gintuen; eta lau hilabeteren buruan, nire bizitzaren kontrola galdu nuen, eta oraindik ere ez naiz nire bizitzaren jabe.

Familiako ardi beltza sentitu izan naiz beti, ekaitz gogor batean bakanduta dagoen hodeia bezala. Hamahiru urterako hainbat droga kontsumitzen zituen haurrak hamabost urterekin ama jo zuen lehen aldiz, eta biok dakigu ez zela azken aldia izan. Ez naiz ausartzen zuri aurpegia jar-

tzen, ez dakit zer moduz zauden, ezta argaltzen jarraitu ote duzun ere. Hala eta guztiz ere, gogoan zaitut; zure gorputz estu eta txikia, haurra nintzela besarkatzen ninduen emakume gozoa, eta nerabezaroa iritsi zitzaidanean, bere zorigaitzak nirekin ordaindu beharrean, gelditzen zitzaion zoriontasun urria ematen zidan hura.

Duela bi urte egin nuen alde etxetik, he-
mezortzi urte egin nituen egunean, hain zuzen ere. Neguko egun ilun hartan, euria bakarrik nuen lagun, bidelagun. Herriko tren geltokian trena hartu eta aspalditik begia botata neukan etxe bat hartu nuen alokairuan.

Ez neukan ikasketarik, beraz, etxe aurreko tabernan zerbitzari lanetan hasi nintzen, etxea ordaindu ahal izateko.

Gaur, beti bezala lanera joan naiz, eta bertan haur bat amari oihuka ikusi dut. Hor ohartu naiz zurekin hitz egin nahi nuela,

zurekin hitz egin behar nuela.

Gaur, aspaldian esan ez badizut ere, maite zaitudala esan nahi dizut, askotan pentsatu baduzu ere, ez duzula alaba galdu, eta nik ere ama bat edukitzea zer den gogoratu nahi dudala.

Zure magalean lokartzen zen haurtxo txikia, zuri musu bat eman gabe ohera joaten ez zena, ez ohera ezta inora ere. Eta elkar gehien behar genuenean, ni ez nintzen zure ondoan egon eta ez nizun nirekin egoten utzi.

Nire bizitzaren motorra zara ama, ondoan behar zaitut. Beraz, gertatutako guztia albo batera utzita, nirekin hitz egin nahi baduzu, dei egidazu; ez baitut mugikorreko zenbakia aldatu.

Maite zaitut ama, ez ahaztu.

Ainhoa Beristain

ALOÑA SALEGI (4. MAILA)

Denok behar dugu norbait gure ondoan

Bakarrik zaude, hotz askorekin
zure hautsitako bihotzarekin,
oso galduta eta baita minduta ere.
Denok behar dugu norbait gure ondoan.
Borrokatzen egon zara zure oroitzapenekin,
zure kontura, bakar-bakarrik,
izotzeko malko haiek kanporatuz.
Denok behar dugu norbait gure ondoan.
Badakit nola sentitzen den,
euritan bakarrik egotean,
egunaren bukaeran babesik gabe jarraitzean.
Denok behar dugu norbait gure ondoan.
Entzuten zaitut, sufritzen eta bakarrik,
garrasika zaude, baita babesik gabe ere.
Lasai egon, ez dizut joaten utziko.
Denok behar dugu norbait gure ondoan.
Itzali itzazu zure sentimenduak
eta erakutsi ezazu irribarre handi bat.
Egon zaitetz lasai, gertu edukiko nauzu eta.
Denok behar dugu norbait gure ondoan.



NADIA PERALVO (1. MAILA)

ERREPORTAJEA

Mendata institutuko bigarren mailako ikasleek bidalitako bigarren erreportajea duzue hau. Azken alean aipatu genuen bezala, kazetaritza genero hori (erreportajea) aztertu dute aurten ikasleek, Euskara eta Literatura irakasgaien.

Hiru hilabetez baliabide ezberdinak landu dituzte, amaieran, bakarka, erreportaje bat sortzeko.

Ikasleek aurkeztutako lan batzuk (hiru guztira) jaso ditugu erredakzioan. Eta, zalantzarik gabe, atseginez argitaratuko ditu *Berriketan*-ek irakurle guztien eskura egon daitezzen. Uztailean kaleratu zen lehenengoa, honako hau da bigarrena eta hirugarrenak ikasturte berriaren hasieran ikusiko du argia.

Debako Musika Banda

Debako Musika Banda Debako festen eta ospakizunen parte garrantzitsua da. Izan ere, ekitaldi asko egiten ditu urtean zehar. Egoera ez da beti erraza izan, batzuetan ez da egon jende edo diru nahikorik proiektu hau aurrera eramanez ahal izateko.

Historia

Debako Musika Bandak 1978. urtean hasi zuen bere ibilbidea, gazte talde batek, Santi Gimenezen agindupean, Udal Banda zaharraren instrumentuak uzteko eskatu zuenean. 1982. urtean, festetan ibiltzen ziren bi fanfarreeta gazteak elkartu eta banda osatzera iritsi ziren. Gaizka Ayastuyren hitzen arabera, bera 1984. urtean sartu zen (12 urte zituela) eta musika eskolarik ez zegoenez, antzinako eskolako gela batean entseatzeko zuten, ping-pongeko mahaiak atril bezala erabiliz. Hasieran, bere kuadrillarekin hasi zen jotzen udal txekak utzitako instrumentuak, joko bat izango balitz moduan. Ondoren, banda jendea eskatzen hasi zen eta Gaizka eta beste bospasei lagunek eman zuten izena (bakoi-tzari instrumentu bat eman zioten). Beranduago, Andima Egaña izan zen zuzendaria 1992. urtera arte.

1994. urtean, zuzendaritza aldatu eta Fernando Urain jarri zen buru, gaur egungo zuzendaria bera izanik. Fernando Urainen zuzendaritzapean irabazi zituen Debako Musika Bandak Euskadiko Musika Banden hiru txapelketa (1994, 1996, 1997). 1997. urtean *"Deba eta Sorozabal"* izeneko diskoa grabatu zuen eta 1998an Donostiako Musika Hamabostaldian eta Donostiako Aste Nagusian ere aritu zen. Urte askotan hartu du parte Donostiako Danborradan elkarte desberdinekin, eta 1999tik 2009ra Unión Artesana elkartearekin batera aritu zen Donostiako Arriadan, San Sebastian egunean. Elkarte horrekin grabatu zuen *"Donostiako Arriada"* diskoa 2001. urtean.

2003ko ekainaren 24an, Donostiako Orfeoiekin batera Anoetan ospatu zen

Errealaren Afizioaren Festan parte hartu zuen eta eszenatoki berean aritu ziren La Oreja de Van Gogh, Alex Ubago, Mikel Erentxun, Javier Muguruza, etab. Urte horretan bertan, musika bandaren 25. urtemuga ospatzeko, hirugarren diskoa grabatu zuten, *"Debako Musika Banda 25. urterrena"* izeneko. 2001 eta 2005 urteetan, Debako Musika zikloan Aitzuri abesbatzarekin batera parte hartu zuen taldeak, eta horrela, 2005eko kontzertua grabatuz, hirugarren CDa eta DVDa atera zuen.

Musika erreperitorio zabala

1992. urtetik aurrera talde honek askotariko trebeziak landu ditu zenbait musika estilotan, bere ikusleei zer edo zer berria eskainiz eta jende gehiago erakarritz.

2007. urtean eskemak aldatu eta swing kontzertu bat eskaini zuen Big Band formatuan, ohiko taldeari piano bat, kontrabaxu bat, abeslaria eta dantzariak erantsiz.



2008. urtean Donostiako Jazzaldiko bertako taldeen sailean hautatua izan zen sailkapen kontzertuan parte hartzeko eta sailkapen proba pasata, 43. edizioaren baitan jotzeko aukeratu zuten. 2011. urtean berriro lortu zuen Donostiako Jazzaldiaren parte izatea, baina eguraldi eskasaren ondorioz azkenean kontzertua bertan behera geratu zen. 2013ko uztailean, berriz, Aitzuri Abesbatza lagun zuela, Pablo Sorozabalen omenezko kontzertu bat eskaini zuen zumardian.

Inguruko herrietako bandekin ere kontzertuak eskaini izan ditu -Zumaiaiko Musika Bandarekin 2014. urtean, esaterako- eta beste hainbat herritan ere aritu izan da (Lekeition, Eibarren, Markinan, Elgoibarren, Zumarragan...). Gonbidatu bereziekin ere eskaini izan ditu kontzertuak, hala nola Alberto Urretxo, Lizarrako gaiteroak, Marixi Sesma, Garikoitz Mendizabal eta Mikel Emezabalekin. 2017an, Inaki Salvador pianista ospetsuarekin jazz kontzertua jotzeko aukera izan zuen, eta urte berean, Pirritx eta Porrotxekin Irribanda osatu zuen, musika eskolako ume eta partaideekin batera.

Gaur egungo ekitaldiak

"Bere garaian, Debako Musika Banda festetan bakarrik jotzeko sortu zen", azaldu zigun Gaizka Ayastuyk, baina gaur egun bestelakoa da bandaren egoera; hasierako urteetan baino prestatuago dago eta egoerak hobera egin du. Horren ondorioz, azkenengo urteetan musika bandak ekitaldi ugari antolatu ditu festetatik kanpo. Udan, adibidez, uztailean bukaeran *"bailableak"* eskaintzen ditu, eta urtean behin Itziarrera joaten da bertan emanaldi bat egiteko. Gainera, aurten, uztailean erdialdean bertsoariarekin batera aritu dira oholtza gainean.

Ekitaldi guztiak oso egokiak dira musika gustuko duten pertsonentzako.

MARTINA SOTO



“DEBAROCK KOLEKTIBOA, 10 urtez musika eredia iraultzen”



Debarock Kolektiboak botako du aurten San Roke festen hasierako txupinazoa eta ‘poz handiz’ hartu du bere gain ardura hori, urteetan egindako lanaren aitortza delakoan. Izan ere, Kolektiboak hamar urte bete berri ditu uztailean eta ospakizunaren bueltan diskoa ere plazaratu du, ‘Debarock Kolektiboa, 10 urtez musika eredia iraultzen’ izenburupean.

Orain arteko ibilbidea, aurrera begirako erronkak, egunotan aurkezten duten diskoa... izan ditugu hizpide solasaldi honetan. Baita jaietako txosna guneko ekimenak ere, noski, Txosna Batzordeko eragileekin batera egitarau oparoa antolatu baitute.

Hamar urte bete berri uztailean. Zorionak! Zein egoeratan heldzen da kolektiboa urtemuga honetara?

Mila esker! Urtean zehar herriko eszena musikala indartzeko lanetan eta hamaika kontzerturen antolakuntzan aritu ostean, udari ilusioz heldu diogu, erronka berriekin eta kolektiboaren lehen hamarkada ospatzeko gogoz. Kolektiboaren jardunari dagokionez, gaur egun musika talde kopuruak behera egin badu ere, oraindik ere oholtza gainean jarraitzeko gogoz gabilta.

Zelan baloratzen duzue orain arteko ibilbidea?

Hamar urte hauetan herriko musika eszena indartu, Deba Euskal Herriko kontzertu zaleontzako gune erreferentzial bilakatu eta kontzertuak antolatze-ko era alternatibo bat badagoela erakusteko lan ikaragarria egin dugu. Aurkitu ditugun traba eta zailtasunei aurre egiteak “desgaste” ikaragarria ekarri digun arren, aurrera jarraitzeko asmoa daukagu, oraindik lan handia dago egiteko!

Eta aurrera begira zer? Zer asmo, erronka edo planteamendu?

Etorkizuneko erronkei dagokienez, gaur egun entsegu gelen hobekuntza da gure erronka nagusia. Duela urte batzuk Udalak Agirre Jauregiko gelak utzi zizkigun hauek entsegu gela bezala erabiltzeko. Nahiz eta hau aurrerapauso handia izan zen, gela hauek zenbait gabezia dituzte (intsonorizazioa, bentilazioa, komunen falta...), eta Udalarekin elkarri-rrizketetan aritu gara egoera konpontzeko. Badakigu udaletxeak hainbat alor eta egoera kudeatu behar dituela, baina gure partetik egoera hau konpontzeko jarrera aktiboagoa eskatzen diogu, orain arte behintzat, entsegu gelak hobetu eta benetan duin egiteko asmoak ez baitira gauzatu.

Ospakizunarekin batera datorkiguzuen diskoaren aurkezpena. Zelakoa da diskoa?

“Debarock Kolektiboa, 10 urtez musika eredia iraultzen” diskoa Debako 15 musika talde, bakarlari, eta diskoan parte hartzeko elkartu diren lagunen abestiak

biltzen dituen bilduma da. Gure diskoan estilo anitzeko kantuek aurki daitezke (rock and roll, metal, punk, ska, folk...). Hala ere, rock eta punk doinuak dira diskoan pisu handiena hartu dutenak.

Nolakoa izan da grabazio prozesua?

Diskoa Debarock Kolektiboak kudeatzen dituen Agirre Jauregiko entsegu geletan grabatu dugu, eta bertan entseatzeko duten musika talde orori eman zaio abesti bat grabatzeko aukera. Erronka honek lan eta esfortzu handia suposatu digu, baina asko ikasi dugu.

Autogestionatutako diskoa da?

Bai. Grabaketa, masterizazioa, argazki sesioak, diseinu eta maketazio lanak Debarock Kolektiboko kideek zein inguruko lagunek eginak dira. Finantzaketarako ere ez dugu inolako diru-laguntzarik izan, diskoen aurre-salmentarekin lortu dugu kopien gastuak ordaintzea.

Gustura emaitzarekin?

Gure azpiegitura eta erabilitako materiala onena ez izan arren, lortutako



emaitzarekin oso pozik gaude. Soinu kalitateaz haratago, batez ere diskoaren grabaketa prozesuan parte hartu duen jende kopuruarengatik.

Non eta noiz egongo da salgai?

Diskoa abuztuaren 11n eguerdiko 12:00etatik aurrera plaza zaharrean jarriko dugun postuan jarriko dugu salgai, 5 euroan. Ale mugatuak ditugu; beraz, azkar ibili!

Jaietako txupinazoa aurten Debarock Kolektiboak botako du. Zer sentsazioekin? Pozik jaso zenuten albistea?

Hamarkada batez gure herriko jaietako kontzertuak antolatzen egon eta gero, poz handiz jaso dugu albistea, batez ere urteetan egindako lan gogorra aitortzea suposatzen duelako.

Disko berriaren aurkezpena eta txupinazoa botatzeko gonbidapena aipatu ditugu. Baina, jakin badakigu txosna gunerako egitaraua ere prest daukazuela. Zer berri aurtengo programazioan?

Aurten ere egitarau oparoa antolatu dugu Txosna Batzordeak eragileekin batera. Kontzertu agendari dagokionez, belarri guztientzako kontzertuak antolatu ditugu. Hamargarren urteurrenaren aitzakiarekin, baina batez ere herriko eszena musikala eraldatu eta eragiteko gure helburuari jarraiki, aurten Debako musikariak presente egoteari garrantzia berezia eman diogu (Jokin eta Saumell, Strikers, Brigade Loco, Kon-Kontrol, Ezten Giro, Nevadah, Ez dabil, Dawanada).

Talde hauez gain, Euskal Herrian erreferenteak diren taldeak ekartzea lortu dugu (Skakeitan eta Willis Drummond), baita pixkanaka indarra hartzen doazen taldeak ere (Skabidean). Inguruko herrietako hainbat talderi ere oholtzara igotzeko aukera eman diegu (The Grace of Dionysus, Rodeo).

Galdetu edo aipatu ez dugun zer-bait nabarmendu nahi? Zuena da azken hitza...

Emandako aukera hau aprobetxatuz, Debako musikari eta musikazaleei Debarock Kolektiboan eta entsegu geletan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi diegu. Emakumezkoei batez ere, oholtzara igotzeko garaia da, animatu! Gurekin harremanetan jartzeko: debarockolektiboa@gmail.com.

Berdintasun Batzordeak antolatutako ekimenak

San Roke festen atarian, Udaleko Berdintasun Sailak eta Debako Talde Feministak elkarlanean adostutako idatzia helarazi dute, herritarrei horren berri emateko helburuarekin –behean duzue irakurgai testu osoa–.

Era berean, jakinarazi dute “**Jaietan ere, gureak kaleak, egunak eta gauak**” leloa daramaten **pultserak** banatuko direla herritarren artean, Berdintasun Batzordearen ekimenez.

Uztaileko **Berriketan** aldizkarian Debako Talde Feministak adierazi zuen bezalaxe, herrian ere gerta daitezkeen eraso sexistak eta matxistak prebenitzeko, eta gertatuz gero hauen aurrean esku hartzeko **protokolo** bat egin dute. Postu bat jarri dute uztaileko pare bat

egunetan, tabernentzako eta txosnetarako protokoloarekin eta gune horietan erasoak onartzen ez direla adierazten duen afixarekin. Gainera, **poltsak** ere salgai dituzte “**(In)justizia patriarkalaren aurrean autodefentsa feminista**” leloarekin.



Bestalde, aurten, lehenbizikoz, **babes gune** bat jarriko da jaietan. Ondoko lerrootan duzue horren inguruko informazio gehiago:

“Jaietan ere, gureak kaleak, egunak eta gauak”

Eraso matxistarik gabeko jaien alde

- Jaiak pertsona guztiek gozatze-ko dira.
- Jaietan **EZ** du denak balio.
- Drogak erabiltzeak edo neurri-rik gabe kontsumitzeak ez ditu eraso-ak justifikatzen.
- Jaietan ere, **EZETZ** beti da **EZETZ**.

Hurrengo baiezkioak eta ezetzak aldarrikatu:

- Bai seguru sentitzeari, zeure erabakiak hartzeari eta aske sentitzeari.
- Bai zeure buruaren jabe izateari eta askatasunez soilik gustatzen zai-zuna egiteari.
- Bai hirian ibiltzean edo etxera itzultzean aske, ez ausart, izateari.
- Bai gozatzeari eta sexualitatea zuk nahi duzun moduan bizitzeari.
- Bai estereotipoak hausteari.
- Bai norberaren edertasunari.
- Bai noraino jarraitu nahi dudan erabakitzeari.
- Ez eraso baten aurrean paso egiteari edota konplize izateari.

- Ez nire borondatearen gainetik pasatzeari.

Kontuan izateko:

Kontuan izan: ligatzea, hitz egitea, dibertitzea, amodio-kontu bat izatea helburu duen topaketaren gakoia izango da bi alderdien desioak partekatzeko, obligaziorik gabe.

Erasoen aurrean:

- Larrialdietan SOS deiak: 112
- Ertzaintza - Eibar: 943 53 17 00
- Telefono bidezko laguntza 24 ordutan: 900 840 111 / 016
- Debako udaltzaingoa: 943 60 80 40

SexuBizi Babes Gunea:

SexuBizi Babes Gunea babes lekua eta gune segurua eskaintzen du. Bertan, genero indarkeriari aurre egiteko bitartekoak eskuratu ahal izango dira, baita sexualitateari buruzko informazioa eta materiala ere.

Abuztuaren 14an, gaueko 1:00etatik 4:00etara bitartean egongo da zabalik, zumardian.

Txosna Guneko egitaraua aurrez abiatuko da

San Roke festen hasiera ofiziala abuztuaren 14an ospatzen bada ere, Debako Txosna Guneko egitaraua aurrez abiatuko da.

Hilaren 11n (larunbata), adibidez, *"Debarock Kolektiboa, 10 urtez musika eredu iraultzen"* CDa jarriko da salgai plaza zaharrean. 20:30ean Jokin&Miquel-en kontzertu akustikoa izango da Txosna Gunean eta 23:00etan Brigade Loco, Strikers eta Kontrol taldeak arituko dira.



Zezenketen aurkako kontzentrazioak egingo dira aurten ere

Debako Zezenketen Aurkako Taldeak deialdia egiten du aurten ere San Roke jaien baitan antolatu diren zezenketen kontra egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko.

Abuztuaren 16an (osteguna) eta 19an (igandea) egingo dira elkarretaratzeak, "Tortura ez da kultura" lelopean. Kontzentrazio isilak ermita parean izango dira, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Animatu eta parte hartu!!!

Debako Zezenketen Aurkako Taldea



Festen hasiera

18:00: San Roke festen hasiera.

Kanpai errepika eta udaletxeko bal-koitik **txupinazoa** botako dute San Roke festei hasiera emateko. Ondoren, Debako Martxaren soinuarekin **zapi gorria jantziko** zaio San Rokeri.

Jarraian: Kalejira, banda, txistulari eta Lizarrako Gaiteroekin (erraldoi eta buruhandien laguntzaz).

19:30: Udaltzatza elizara abiatuko da Alkate Soinuaren entzunez. Gure Kai Dantza Taldeak Erreberentzia eta Ezpata Dantza dantzatzeko ditu. Ondoren, **Hilarion Eslavaren sal-bea** abestuko du Aitzuri Abesbatzak.

22:30: Danborrada Ozio-Bide Elkartearen eskutik.

01:00: Erromeria EZTEN GIRO taldearekin, karpan.



Andra Mari Eguna

10:00: Artisau feria (15:00ak arte).

10:00: Kalejira, Lizarrako Gaiteroekin.

11:00: Kalejira trikitilari taldearekin.

12:30: Desenkajonamendua zezen plazan eta entzierrilloa plazatik Osiora. Ondoren, kalejira Lizarrako Gaiteroekin.

20:00: Kontzertua plaza zaharrean: Fooltime Lovers taldea.

23:00: Kontzertua karpan: WILLIS DRUMMOND, NEVADAH eta RODEO.



San Roke Eguna

07:00: Diana, Musika Bandarekin eta Lizarrako Gaiteroekin.

08:00: Entzierroa. Ondoren, enbolatuak Arrizabalaga Anaien ganaduekin.

09:30: Gure Kai Taldekoen **Ezpata Dantza** plaza zaharrean, San Rokeren irudiaren aurrean. Jarraian, Udaltzatza beste herritar guztiekin batera ermitara igoko da prozesioan eta Meza Nagusia izango da. Ondoren, **Larrain Dantza** egingo da plaza zaharrean (Lizarrako Gaiteroekin eta erraldoien eta buruhandien konpartzarekin).

12:30: Aureskua Foruen Plazan, Gure Kai Dantza Taldearen eskutik. Ondoren, **enbolatuak** Arrizabalaga Anaien ganaduekin.

Jarraian: Txaranga, kaleetan zehar.

18:00: Bertso saioa karpan. Nerea Ibartzabal, Andoni Egaña, Aitor Zubikarai eta Oihana Bartra.

18:00: Umeentzako ekitaldia Simon Berasaluze plazan.

18:00: Zezenketa, Tamameseko (Salamanca) La Ventana del Puerto ganadutegiko idiskoekin. Toreatzaileak: José Antonio Valencia eta Valentin Hoyos. Sobresalienteak: José Manuel Serrano. Ondoren, **enbolatuak**.

Jarraian: Kalejira Musika Bandarekin eta Lizarrako Gaiteroekin (erraldoi eta buruhandien laguntzaz).

20:30: Kontzertua plaza zaharrean: The Supersonic Syndicate.

23:30: Su artifizialak hondartzan (Pirotecnia Zaragozana).



Mariñel Eguna

09:30: Kardantxuloak Kantuan. Irteera plaza zaharretik.

10:30: Jorrai Dantza herriko kaleetan, Gure Kai dantza taldearen eta Kalez Kale Txistularien eskutik.

12:30: Kardantxuloak, bertsolariak eta Txanbezpel (kaleetan).

18:00: Kalejira, Lizarrako Gaiteroak eta txarangarekin.

18:30: Entzierroa. Ondoren, gazte kuadrillen arteko jokoak plazan.

19:15: Kontzertua Ostolaza kalean: Txanbezpel (kantu herrikoiak).

23:00: Kontzertua karpan, Debarock Kolektiboak antolatuta: DAWANADA, THE GRACE OF DIONYSUS eta EZ DABIL.

00:00: Larrain dantza plaza zaharrean.



Umeen Eguna

09:00: Diana, Banda Gaztearekin eta Debako Gaiteroekin.

09:30: Entzierroa, umeentzako.

11:00: Kalejira Luzaro eskolatik. Plaza zaharrean San Roke Txikiri dantza egingo zaio (dantza-korporazioa).

11:30: Kalejira musika eskolatik (danborrada eta erraldoi txikiak). Berasaluzen plazan Tatiago eta erraldoi txikien dantza.

12:00: Plazako jaialdia: danborrada, herri kirolak, dantzak eta zezenak. Ondoren, Umeen Eguneko zozketa.

13:00: 2017ko abuztuaren letik aurtengo uztailaren 31ra bitarte jaiotako **haurrei zapi gorria** jarriko die alkateak udal pleno aretoan.

17:00: Umeen pilota partidak, Aldats pilotalekuan.

18:00: Zirko tailerra, Zirkozaurreren eskutik, Simon Berasaluzen plazan.

20:00: Goazen Karaokea, plaza zaharrean.

23:45: Kontzertua, karpan: SKAKEITAN, SKABIDEAN eta LAKET ERROMERIA.



Kanbo Eguna

07:00: Diana, Musika Bandarekin eta Lizarrako Gaiteroekin.

08:00: Entzierroa. Ondoren, enbolatuak Arrizabalaga Anaien ganadurekin.

11:30: Ongietorria Kanboko ordezkari.

11:30: Udalak eskainita, Zaharren Egoitzan, **hamaiketako** adinekoentzat Trikitilariak izango dira, eta zezenketa rako 9 sarrera bikoitz zozketatuko dira.

12:00: Herri kirolak, Simon Berasaluzen plazan.

12:30: Enbolatuak (Arrizabalaga Anaiak), Jarraian, txaranga.

13:00: Herri kirolak plaza zaharrean.

13:30: Herri kirolak Arakistain plazan.

18:00: Umeentzako ekitaldia, Simon Berasaluzen plazan.

18:00: Zezenketa: Tamameseko (Salamanca) Puerto de San Lorenzo ganadutegiko idiskoekin. Toreatzaileak: Alejandro Rodriguez eta Manuel Vera. Sobresalienteak: José Manuel Serrano.

Ondoren: Erraldoi eta buruhandien Agurra plaza zaharrean, Debako Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

00:00: San Rokeren irudiari ohiturazko **zapi gorria** kenduko zaio.

SAN ROKEAK 2018

Abuztuaren 14tik 19ra



Aurtengo jaietako kartela
duzue goikoa.
Aritz Loiola da egilea.

AGENDA

ABUZTUAK 11, LARUNBATA

-Federarte Debarock Festibala (surf, kultura eta musika). Goizeko 11:00etan emango zaio hasiera egitarauari eta hamaika ekimen antolatu dira: argazki lehiaketa, azoka, herri bazkaria, Sup Race herrikoia eta, besteak beste, kontzertuak gauean Txosna Gunean (ikus 16. orrialdean).

ABUZTUAK 14-19

-San Roke jaiak. Egitaraua eta jaien inguruko informazio gehiago aurkituko duzue aldizkari honetan bertan, 14. orrialdean aurrera.

ABUZTUAK 20, ASTELEHENA

-12:30. **Bisita gidatua** Debatik Zumaiara itsasontziz. Informazio gehiagorako: www.deba.eus.

ABUZTUAK 22, ASTEAZKENA

-13:00. **Bisita gidatua**: Flysch beltza. Informazio gehiagorako: www.deba.eus.

ABUZTUAK 24, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala**. Elkarretaratzea euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen alde, plazan.

ABUZTUAK 25, LARUNBATA

-16:30. **Bisita gidatua**: Gotikoaren altorra, Deban (Santa Maria eliza ezagutuz). Gazteleraz.

ABUZTUAK 31, OSTIRALA

-20:00. **Kontzertua**: Dr Maha's Miracle Tonic (Bilbo), Ondargain tabernan.

IRAILAK 8, LARUNBATA

-9:00. **Kaleko margo sariketa** (16 urtetik gorakoentzat). Margolanak 14:00etarako aurkeztu beharko dituzte lehiakideek. Sariak 18:00etan banatuko dira.

-Ondar Fest (kirola eta musika). Euskalsurf Sup Race Zirkuitua. Kontzertuak Ondargainen.

IRAILAK 9-16

-San Nikolas jaiak Lasturren. Hilaren 9an hasi eta jarraipena izango dute hurrengo asteburuan. Egitarau berezia izango da.

IRAILAK 29, LARUNBATA

-EUSKAL JAIA. Egun osoko egitaraua izango du garai berriko XXI. Euskal Jaiak.

Debako XXXV. Udako Musikaldia

-Aurtengo Udako Musikaldiaren baitan antolatutako kontzertuen egitarauak abian jarraitzen du. Datozen hitzorduak:

***Abuztuak 23, osteguna**: Alberto Urretxo (tronboia) eta hari laukotea.

***Abuztuak 30, osteguna**: Txanbela Otxotea (Zuzendaria: Josean Vega).

Emanaldiak elizako klaustroan burutuko dira, iluntzeko 20:00etan.

Erakusketa

-Elizako klaustroan: "Etxalde baten ome-
nez", Joseite Dacosta (abuztuaren 31ra arte).

Udako ordutegia udal liburutegian

-Ostolaza Udal Liburutegiak udako ordutegiarekin jarraitzen du.

*Liburutegi orokorra: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur/gazte liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

Abuztuaren 15etik 19ra bitarte itxita egongo da, herriko jaiak direla eta.

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **abuztuak 17, 18, 19, 27, 28, 29, 30.**
irailak 14, 15, 16, 24, 25, 26, 27.

Burgoa Zuazo: **abuztuak 13, 14, 15, 16, 31.**
irailak 1, 2, 10, 11, 12, 13.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: abuztuak 18 eta 25

BURGOA ZUAZO: abuztuak 11 / irailak 1 eta 8

9:30 - 13:00

www.uzurioptika.com

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN

Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

Taxi Alain Deba

www.alain.taxideba.eus

636 135 008
alain@taxideba.eus

ZERBITZUAK

- ▶ Partikularrentzako zerbitzuak egunean 24 orduz
- ▶ Enpresentzako zerbitzuak egunean 24 orduz
- ▶ Aireportuetara joan-etorriak
- ▶ Ekitaldietarako luxuzko zerbitzua

EZAUGARRIAK

- ▶ Larruzko eserleku berogarriak
- ▶ wifi-konexioa
- ▶ Android eta iOS gailuentzako kargagailuak



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



MARIE CASTRO IRIBARREN

- Masaje terapeutikoak
- Kiroletako masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Manipulazio txinatarra

MASAJISTA

25 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615

DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasak
- Altzariak
- Osagarriak

Mobilak: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

✉ Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

☎ Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

🌐 sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1. behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lernodi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatz

943 191 383
berriketan@zuhatza.com



ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

LIGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo Apartado 3
20820 DEBA

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urloji.net



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba




ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Enpresa Registrada Nº 2 / 05 / 049
NIVEL 2



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

Aisialdiaz gozatzeko
hamaika arrazoi
eta mila aukera ...

Herritik eta herriarentzako
euskaratik eta
euskaraz!

